

## **ETXEKO LANGILEENTZAT ERE, ENPLEGU ZERBITZU PUBLIKOAK**

Lan Ikuskaritza eta Eusko Jaurlaritzako Lan Sailak enplegu agentzia pribatuei funtzionatzen uzten die inolako legezko baimenik ez duten arren. Agentziak legez kontrako komisioak kobratzen ari dira bitartekaritza lanaren truke, eta langileei eskaintzen dizkieten lan baldintzek ez dituzte gutxieneko eskubideak errespetatzen : eguneko lanaldia, asteko atsedena, Gizarte Segurantzako alta...

Bilbon, agentzia horietako bat UHAGOLAN da, leen CLÍNICA INDAUTXU, APOYO FAMILIAR DOMICILIARIO izena zuela. Salaketa jarri diegu Lan Ikuskaritzaren aurrean, langileei Gizarte Segurantzarik gabe lan egitera behartzen dituelako, eta enplegurako bitartekaritzan ari delako baimenik gabe.

### **Honakoak exijitzen ditugu:**

- **Enplegu agentzia pribatuak kontrolatzea eta etekin asmoa dutenak ixtea.**
- **Enplegu zerbitzu publikoek behar beste baliabidea jar ditzatela etxeke langileen egoeran bitartekari lana era eraginkorrean egin dezaten.**

ASOCIACIÓN DE TRABAJADORAS DE HOGAR DE BIZKAIA  
ETXE LANGILE ELKARTEA

ASAMBLEA DE MUJERES DE BIZKAIA  
BIZKAIKO EMAKUME ASANBLADA